

... /... FORU DEKRETUA,AREN ...(E)KOA, NAFARROAKO JUSTIZIA KONTSEILUA SORTZEN DUENA

[zioen azalpena]

I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Sorrera.*

1. Nafarroako Justizia Kontseilua sortzen da lankidetzaz, azterketa, eztabaida, partaidetza eta aholkularitza organo gisa, Nafarroako Foru Komunitatean justiziaren zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzen dela sustatzeko asmoz.
2. Justiziaren arloan eskumena duen departamentuari atxikiko zaio Nafarroako Justizia Kontseilua; behar bezala aritzeko behar dituen bitarteko materialak eta giza baliabideak emanen dizkio hark.

II. KAPITULUA: Nafarroako Justizia Kontseilua osatzen duten pertsonak

2. artikulua. *Osaera.*

1. Honako hauek osatuko dute Nafarroako Justizia Kontseilua:

- a) Justiziaren arloan eskumena duen kontseilaria.
- b) Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko burua.
- c) Nafarroako botere judizialeko gobernu organoetako bi kide, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak izendatuak.
- d) Nafarroako fiskal nagusia edo hark eskuordetzen duen Fiskaltzako langilea.
- e) Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko gobernu idazkaria.
- f) Nafarroako Abokatuen Elkargoen bi ordezkari, haien kideen artean izendatutakoak.
- g) Nafarroako Prokuradoreen Elkargoaren ordezkari bat, haren kideen artean izendatutakoa.
- h) Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko Langileen Batzordearen ordezkari bat.
- i) Nafarroako Gizarte Graduatuen Elkargoaren ordezkari bat, haren kideen artean izendatutakoa.
- j) Nafarroako Gobernuko Justiziako zuzendari nagusia.
- k) Giza Baliabideen eta Bulego Judizial eta Fiskal Berriaren Zerbitzuko zuzendaria.

2. Justiziaren arloan eskumena duen kontseilaria Nafarroako Justizia Kontseiluko burua izanen da.
3. Giza Baliabideen eta Bulego Judizial eta Fiskal Berriaren Zerbitzuko zuzendaria Nafarroako Justizia Kontseiluko idazkaria izanen da.
4. Artikulu honen 1. apartatuko c), d) eta e) letretan aipatzen diren karguak dituztenak Kontseiluko kideak izanen dira, Kontseiluan kargu hori hartzea erabakitzen badute.

3. artikulua. *Agintaldia, ordezpena eta kargu-uztea.*

1. Karguaren ondorioz Kontseiluko kide direnen agintaldiak kargu horretan dauden bitartean iraunen du.
2. Kontseilukide beren karguagatik ez direnen agintaldiak lau urte iraunen du, eta pertsona horien agintaldi kopurua ez da mugatuko.
3. Kontseilukide beren karguagatik ez direnen artean lanpostu hutsen bat badago, ordezkoaren agintaldiaren iraupena izanen da lanpostua utzi duenaren agintaldia amaitu arte falta den denbora tartea.
4. Nafarroako Justizia Kontseiluko kideek kargua utziko dute honako arrazoi hauetako batengatik:
 - a) Kontseiluko kide izatea dakarren kargua uztea.
 - b) Haren izendapena egin zuen entitateak proposatzea.
 - c) Gerora etorritako ezgaitasuna, legez adierazitakoa.
 - d) Agintaldiaren bukaera.
 - e) Ukoa.
 - f) Kargu publikoetan aritzeko gaitasunik gabe uztea epai judizial irmoaren bidez.
5. Nafarroako Justizia Kontseiluko kideak beren karguetan arituko dira horiek ordeztu behar dituztenak karguaz jabetu arte.

4. artikulua. *Eskubideak eta betebeharrak.*

1. Nafarroako Justizia Kontseiluko kideek honako eskubide hauek dituzte:
 - a) Nafarroako Justiziako Aholku Kontseiluko osoko bilkuraren eta kide dituzten lantaldeen bileretarako deia jasotzea eta horietara joatea hitzarekin eta botoarekin.
 - b) Proposamenak aurkeztea lehendakariaren bidez.
 - c) Eratzen diren batzorde txostengileetako kide izatea, osoko bilkurak zehazten duenaren arabera.
 - d) Legez edo erregelamenduz esleitzen zaien beste edozein.

2. Nafarroako Justizia Kontseiluko kideek partaide dituzten organoen bileretara joateko betebeharra dute, eta ezin etorria adieraziko dute ezinezko egiten zaienean.

5. artikulua. *Kalte-ordainak.*

Nafarroako Justizia Kontseiluko kide izateak ez dakar inolako ordainsaririk berekin, ezertan galarazi gabe zerbitzuaren ondorioz sortzen diren gastuengatik esleai daitekeen kalte-ordaina.

3. Eginkizunak artikulua honetan ezarritakoak izanen dira, ezertan galarazi gabe Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Estatuko Fiskaltza Nagusiari eta justizia administrazioarekin lotutako eskumenak dituzten administrazioei dagozkien eskumenak.
4. Nafarroako Justizia Kontseiluak egiten dituen proposamenak, azterlanak eta txostenak eskumenekoak eta ez-lotesleak dira.
5. Nafarroako Justizia Kontseiluak onesten dituen proposamenak eta azterlanak jakinaraziko zaizkie horien edukia araberako interesduntzat edo ukitutzat jotzen diren entitateei eta sektore sozialei.

IV. KAPITULUA. Antolaketa eta funtzionamendua

7. artikulua. *Lehendakaritza*

1. Nafarroako Justizia Kontseiluko buruak honako eginkizun hauek izanen ditu:
 - a) Kontseilua ordezkatzeari.
 - b) Kontseiluaren bilkuretarako deia egitea eta gai-zerrenda finkatzea, kideen proposamenak aintzat hartzen dituena.
 - c) Bilkuretan buru eta moderatzaile lanak egitea.
 - d) Nafarroako Justizia Kontseiluari egokitu arren, beste organo bati esleituta ez dagoen beste edozein.
2. Kontseiluburuaren kargua bete gabe dagoenean, hura falta denean edo eri dagoenean, berak izendatzen duen kideak ordeztuko du.

8. artikulua. *Idazkaritza*

1. Nafarroako Justizia Kontseiluko idazkariak honako eginkizun hauek izanen ditu:
 - a) Buruak aginduta, Kontseiluaren bilkuretarako deia egitea.
 - b) Bilkuren aktak idaztea.
 - c) Kontseiluaren dokumentuak eta fitxategiak zaintzea.
 - d) Kontseiluburuaren oniritzia izanda, Kontseiluaren bilkuren akten, erabakien eta bertaratzeen ziurtagiriak egitea.

- e) Idazkariari dagokion beste edozein.
- 2. Idazkariaren kargua bete gabe dagoenean, hura falta denean edo eri dagoenean, kontseiluburuak izendatzen duen kideak ordeztuko du.

9. artikulua. *Osoko bilkura*

- 1. Nafarroako Justizia Kontseiluko osoko bilkura buruak, idazkariak eta kideek osatuko dute.
- 2. Osoko bilkurak urtean bi aldiz egingen du bilkura arrunta, gutxienez.

Bilkura arruntetarako deia 8 egun lehenago egingen da gutxienez, eta Kontseiluko kideei igorriko zaie, gai-zerrendarekin eta beharrezkotzat jotzen den dokumentazioarekin batera.

- 3. Osoko bilkurak bilkura bereziak egingen ditu kontseiluburuak egokitzat jotzen duenean edo kideen laurden batek eskatzen duenean.

Bilkura berezietarako deia 4 egun lehenago egingen da, eta bilkura arruntetarako deien baldintza beretan egingen da.

- 4. Kontseiluburuak osoko bilkurarako deia egiten ahalko du premia larriko arrazoiengatik, eta osoko bilkurak hurrengo 24 orduan bildu beharko du.
- 5. Osoko bilkura lehen deialdian modu baliozkoan eratzeko, beharrezkoa izanen da kontseiluburua, idazkaria (edo horiek modu baliozkoan ordezten dituztenak) edo kideen erdia, gutxienez, bertaratzea.

Bigarren deialdian, baldin badago, nahikoa izanen da kideen heren bat egotea.

- 6. Osoko bilkuraren erabakiak kideen gehiengo osoz hartuko dira.

10. artikulua. *Lantaldeak.*

- 1. Osoko bilkurak lantaldeak sortzen ahalko ditu, Nafarroako Justizia Kontseiluaren lanak prestatu, egin edo idazteko.
- 2. Kontseilutik kanpoko pertsonak sartzten ahalko dira lantaldeetan, baldin eta haien lan esperientzia edo jakintza teknikoak interesgarritzat jotzen badira Kontseiluaren eginkizunak gauzatzeko.
- 3. Lantaldeak sortzeko erabakiak honako alderdi hauek zehaztuko ditu:
 - a) Osaera.
 - b) Koordinatzailea, beharren arabera buruaren eta idazkariaren lanak gauzatzeko dituen lantaldean.
 - c) Lantaldearen xedea eta, hala badagokio, haren edukiari buruzko jarraibideak.
 - d) Bere lanaren emaitzak buruaren bidez osoko bilkurari helarazteko duen epea.

e) Lantaldeek behar bezala funtzionatzeko beharrezkotzat jotzen diren beste gai batzuk.

11. artikulua. *Funtzionamendu arauak.*

Nafarroako Justizia Kontseiluak bere barne funtzionamendurako arauak ezartzen ahalko ditu honako hauetan ezarritakoaren esparruan: foru dekretu hau, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea eta Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.

Xedapen gehigarri bakarra. *Nafarroako Justizia Kontseiluaren eraketa.*

1. Nafarroako Justizia Kontseiluak hiru hilabeteko epean eratu beharko du, foru dekretu honek indarra hartzen duenetik hasita.
2. Nafarroako Justizia Kontseilua modu baliozkoan eratzeko, nahikoa izanen da burua, idazkaria eta 2.1 artikuluko d), e) eta f) letretan aipatzen diren kideak karguaz jabetzea, ezertan galarazi gabe gainerako kideak ondoren sartzea.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indarrrik gabe gelditzen da Nafarroako Justiziako Aholku Kontseilua sortzen duen azaroaren 30eko 361/2004 Foru Dekretua.

Azken xedapenetako lehena. *Arau garapena.*

Justiziaren arloan eskumena duen kontseilaria ahalduentzen da foru dekretu hau garatzeko behar diren arau guztiak emateko.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarra hartzea.*

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunean hartuko du indarra.